

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko Monasterioguren Menpeko Toki Erakundeko lurzoru urbanizaezin batean txakurrak trebatzeko zentroa jartzeko plan bereziaren proiektuari

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko ekainaren 19an egindako ohiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

1. Hasierako onespena ematea Monasterioguren menpeko toki erakundeko lurzoru urbanizaezin batean txakurrak trebatzeko zentro bat ezartzeko plan bereziari, baina, behin betiko onartu aurretik, dokumentazio berria aurkeztu beharko da, 2026ko ekainaren 11ko txosten juridikoan adierazitakoaren arabera. Hasierako onespene hori ingurumen-txosten estrategikoaren emaitzen arabera izango da.

2. Espedientea jendaurrean jartzea, hogei egunez, ALHAOn, udalaren iragarki-taulan eta zabalkunderik handiena duten egunkari batean edo gehiagotan iragarkiak argitaratuz, horrek eragiten diola uste duen orok aztertzerik izan dezan, baita egokitzen dituen alegazioak edo oharak aurkezterik ere.

3. Plan bereziaren eraginpeko eragindako administrazio-batzarrei bidaltzea plana, hogei eguneko epean txostena egin dezaten. Epe hori amaituta erantzunik edo ebaizpenik jaso ez bada, izapidearekin jarraitu ahal izango da. Udal-zerbitzu teknikoei ere bidaliko zaie, txostena egin dezaten eta izan ditzaketen eraginei buruzko informazioa eman dezaten.

4. Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidaltzea erabaki hau, dagokion txostena egin dezan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 97.4 artikuluen ildotik.

5. Etxebizitzaren, Lurzoruaren eta Hirigintzaren arloko Presako Neurrien abenduaren 11ko 6/2025 Legearen bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, txosten sektorial bakarra egiteko eskatzen da, Arabako Foru Aldundiaren mendeko organoei dagokienez.

6. Uraren Euskal Agentziari nahitaezko txostena eskatzea, ekainaren 23ko Urari buruzko 1/2006 Legeak 7. artikuluen k) apartatuaren arabera.

7. AMVISari sareen nahikotasunari eta hornidurari buruzko txostena eskatzea.

8. Plan berezia interes publikotzat deklaratu dezala eskatzea Arabako Foru Aldundiari, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen ezarritakoaren arabera.

9. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1.d) artikuluen arabera, tramitazioak behartutako nahitaezko txosten litesleetakoren bat jaso ezean, eten egingo da behin betiko onesteko epea.

10. Aldakuntza indarrean sartu arte, etetea eremu horren antolamendu berriaren kontrakoak diren eremu edo erabileren onarpen, baimen eta hirigintza-lizentzia mota ororen emakida, betiere, gehienez urtebetez.

Dosierra Vitoria-Gasteizko Udaleko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25—, adierazitako epean, ALHAOn argitaratzen denetik.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko ekainaren 26an

Alkate lehendakaria

MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA